

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Ekoizpen baliabide mota desberdinak daude; natur baliabideak, lana eta kapital-ondasunak. Hiru elementu hauek izugarritzko garrantzia dute gure produktuaren garapenerako eta behar bezala funtzionatu dezan.

Natur baliabideei erreparatuta, naturan jatorria duten materialak dira. Gure kasuan, hauek beharrezkoak izango dira; izan ere, produktua sortzeko edo eraikitzeko ezinbestekoak dira.

Lana, ekoizpen-prozesuan parte hartzen duen giza taldea da.

Langileak hain zuzen ere. Hauek jarduera fisikoa nahiz intelektualak egiten dituzte eta ezinbestekoa da pertsona talde bat kontratatzea gure produktua aurrera eramateko. Alde batetik, taldearen sormena, informatikako salmentarako eta



antolaketarako dituzten abileziak behar ditugu. Bestetik, produktuaren ekoizpen fisikoan parte hartu behar dute. Nahiz eta, makina asko erabili prozesu honetan, beharrezkoa da pertsona bat ordenagailu batean lan egiten egotea, zein makinak kontrolatzen egotea. Azken batean, makinaz beterik dagoen fabrika bat funtzionatu dezan gutxienez pertsona batek parte hatu behar du.

Azkenik, kapital-ondasunak ditugu. Bi multzotan bereizten dira: finantza baliabideak edo finantza-kapitala eta elementu edo baliabide fisikoak.

Finantza baliabidea normalean dirua izaten da, gure kasuan udalaren finantzaketa beharko dugu. Udalaren laguntza ekonomikoarekin produktua produzitzen hasteko prest egongo gara eta dirua ekoizteko zein publizitatea egiteko erabiliko dugu. Bakarrik hiri bateko udalak lagunduko gaitu eta horren truke haiei produktua doanik eskainiko diegu.

Baliabide fisikoak erabiliko ditugun ekipamenduak, espazioa, makinak etab dira. Hauek dira beharko ditugunak: Ordenagailua, telefonoa, fabrika eta ekoizteko beharrezkoak diren makinak eta lanerako espazioa (gelak, bulegoak).